

Nafarroan artatutako Etxerik gabeko Pertsonen buruzko Inkesta
2022. urtea

2022ko otsail-martxoan, Nafarroan, etxerik gabeko 603 pertsonak jaso dute arreta, 2012an baino % 82,7 gehiagok

% 22,4 emakumeak ziren; alegia, 14,2 puntu egin du gora 2012. urtearen aldean

Arreta jaso duten pertsonen % 85,7k 30 eta 62 urte bitartean dituzte

2022ko abenduaren 2a

Nafarroako zentroetan arreta jasotzen duten etxerik gabeko pertsona atzerritar gehienak Amerikako herrialdeetakoak dira (kopuru osoaren % 18,7), ondoren Afrikako herrialdeetakoak (% 10,4) eta, gero, Europar Batasuneko beste herrialde batzuetakoak (% 2,4).

NAFARROAN ARTATUTAKO ETXERIK GABEKO PERTSONAK

2022an, Nafarroan, etxerik gabeko 603 pertsonari eman zitzairen arreta, 2012an baino % 82,7 gehiagori; orduan egin zen inkesta azken aldiz. 135 emakumeak ziren (% 22,4); alegia, 14,2 portzentaje-puntu egin du gora 2012aren aldean.

1. GRAFIKOA

Nafarroako zentroetan arreta jasotzen duten etxerik gabeko pertsonak (2012 eta 2022) (%)



Iturria: Nastat, INEren Etxerik gabeko Pertsonen buruzko Inkestan oinarrituta.




ADINA ETA NAZIONALITATEA

Adin-taldeen arabeko banaketa. Nafarroan arreta jasotzen duten etxerik gabeko pertsona gehienak 30 eta 44 urte bitartekoak dira (% 45,8), eta, 45 eta 64 urte bitartekoekin batera, 2022an kasu guztien % 85 baino gehiago dira. 2012arekin alderatuta, behera egin du etxerik ez duen 18 eta 29 urte bitarteko pertsonen portzentajeak (% 23,7koa 2012an eta % 14,4koa 2022an), eta gora egin du 45 eta 64 urte bitartekoen portzentajeak (% 30,7koa 2012an eta % 39,9 2022an).

2. GRAFIKOA

Nafarroako zentroetan arreta jasotzen duten etxerik gabeko pertsonak, adin-taldeen arabera (2012 eta 2022) (%)



Iturria: Nastat, INEren Etxerik gabeko Pertsonen buruzko Inkestan oinarrituta.

Nazionalitatea. Nafarroako zentroetan arreta jasotzen duten etxerik gabeko pertsona gehienak espainiarrak dira, % 68,5, baina ehuneko horrek behera egin du 10,7 portzentaje-puntu, 2012arekin alderatuta. Etxerik gabeko pertsona atzerritar gehienak Amerikako kontinentetik datoz (guztizkoaren % 18,7), ondoren Afrikako herrialdeetatik (% 10,4) eta, gero, Europar Batasuneko beste herrialde batzuetatik (% 2,4). Aldaketa nabarmena egon da; izan ere, 2012an, Europar Batasuneko beste herrialde batzuetako herritarrak gehiengo ziren etxerik gabeko pertsonen artean (% 14,2), eta Afrikako eta Amerikako herrialdeetako pertsonak guztizkoaren % 6,6 baino ez ziren.

1. TAULA

Nafarroako zentroetan arreta jasotzen duten etxerik gabeko pertsonak, nazionalitatearen arabera (2012 eta 2022) (Balio absolutuak eta %).

Ehuneko horizontalak	2012		2022	
	Balio absolutua	%	Balio absolutua	%
Nazionalitatea				
Espainiarra	261	79,2	413	68,5
Europar Batasuna (Espainia aparte)	47	14,2	14	2,4
Afrika	10	3,1	63	10,4
Amerika	11	3,5	113	18,7
Guztira	330	100,0	603	100,0

Iturria: Nastat, INEren Etxerik gabeko Pertsonen buruzko Inkestan oinarrituta.



CONTACTO | HARREMANETARAKO

estadistica@navarra.es

848 42 34 00

BESTE AUTONOMIA-ERKIDEGO BATZUEKIKO ARRETA

Jatorria. Nafarroako zentroetan arreta jasotzen duten etxerik gabeko pertsonak, kasuen % 49,7an, Foru Komunitatetik datoz; 2012an % 33,6 ziren. Gainerako etxerik gabeko pertsonak biztanle-nukleo handiak dituzten erkidegoetatik datoz, nagusiki: Katalunia (% 16,8) eta Madril (% 8,5). 2012an, gehienak hurbileko erkidegoetatik zetozen: Aragoi (% 22,7) eta EAE (% 18,6).

Nafarroatik datozen eta beste erkidego batzuetako zentroetan arreta jasotzen duten etxerik gabeko pertsonen dagokienez, gehienak EAEn eta Kantabrian daude (% 38,0 eta % 21,8, hurrenez hurren).

MOTIBOAK ETA DENBORA ETXERIK GABE

Pertsona horiek etxerik gabe geratzeko motiboak. Etxerik gabeko pertsona gehienek diote egoera horretara honako motibo hauengatik iritsi zirela: aurreko etxea utzarazi zieten (% 41,0), alokairu-kontratua amaitu zitzaizen (% 12,4), lana galdu zuten (% 13,2) eta zerotik hasi ziren, beste herrialde batera emigratu ondoren (% 11,5). Gainerakoek motibo pertsonalak azaldu dituzte (bikotearekin apurtu zuten, genero-indarkeria jasan zuten, ospitaleratuta egon ziren), bai eta identifikatu gabeko beste kausa batzuk ere.

2012an, arreta jaso zuten pertsona gehienek esan zuten honako motibo hauengatik zeudela etxerik gabe: lana galdu zutelako (% 53,3), indarkeria jasan zutelako (% 26,0), ospitaleratuta egon zirelako (% 22,4), bikotearengandik banandu zirelako (% 22,3) edo ostatua ordaintzen jarraitu ezin zutelako (% 20,5).

Denbora etxerik gabe. Etxerik gabeko pertsonen artean, % 46,8k 3 urte baino gehiago darama egoera horretan; alegia, 29,9 portzentaje-puntu egin du gora kopuruak, 2012arekin alderatuta. Nafarroan arreta jasotzen duten etxerik gabeko pertsonen % 38,4k 6 hilabete baino gutxiago daramatzate, eta, haietatik, bi herenek hilabete baino gutxiago daramate egoera horretan. 2012an, etxerik gabe 6 hilabete baino gehiago zeramatzaten pertsona gehiago erregistratu ziren (% 60,4). Etxerik gabe 6 hilabete eta 3 urte bitartean daramatzatenak, gaur egun, guztizkoaren % 14,9 dira; 2012an, % 22,8 ziren.





OHAR METODOLOGIKOA

Etixerik gabeko pertsonen buruzko inkesta aldizkakotasun finkorik gabeko inkesta da. INEk egiten du, eta helburua da kolektiboko pertsonen profil soziodemografikoa, bizi-baldintzak eta ostaturako sarbidea izateko zailtasunak ezagutzea. Nastatek, eskuratzen dituen datuak ustiatzean, Nafarroa hartzen du ardatz.

Inkestan parte hartu duten pertsonen honako ezaugarri hauek dituzte: etxerik gabeak dira, 18 urtekoak edo gehiagokoak eta 20.000 biztanletik gorako udalerrietan dauden ostatu- eta/edo jatetxe-zerbitzuak eskaintzen dituzten zentroetara joaten dira. Lagina 3.500 zerbitzu inguruk osatzen dute, haietan biltzen dela informazioa, eta emaitzak, 2022ko edizioan, urte horretako otsailetik martxora bitarteko aldiari dagozkie.

Azkenik, laginketa 2 etapatan egiten da, lehenengoan estratifikatuta, eta unitate gisa aipatutako zentroak erabiltzen dira. Zentroak bi irizpideren arabera estratifikatzen dira: ematen duten zerbitzu mota eta zerbitzu kopurua. Bigarren etapen, zentroek emandako zerbitzuak estratifikatzen dira.

Eragiketa mota: aldizkakotasun finkorik gabe.

Biztanle-eremua: 18 urteko edo gehiagoko herritarrak, 20.000 biztanletik gorako udalerrietan dauden ostatu- eta/edo jatetxe-zerbitzuak eskaintzen dituzten zentroetara joaten direnak.

Eremu geografikoa: Nafarroako Foru Komunitatea.

Erreferentzia-aldia: 2022ko otsailetik martxora.

Biltzeko metodoa: ordenagailu bidez lagundutako elkarrizketa pertsonala (CAPI) eta, salbuespen gisa, telefono (CATI) edo Internet bidez (CAWI), indarkeriaren biktima diren emakumeen kolektiboarentzat.



INFORMAZIO GEHIAGO

Nastat

Nafarroan artatutako Etxerik gabeko Pertsonen buruzko Inkesta. 2022. urtea.



CONTACTO | HARREMANETARAKO

estadistica@navarra.es

848 42 34 00